



**Larunbat honetan giza-katea
Donostian, GuraSOsek deituta**

**Ostalaritzako establezimenduek
1.000 euro arteko diru-laguntza
jaso dezakete**

**Aldaketak Kalezarko trafikoan,
urbanizazio lanek eraginda**



Txotx garaia hastera doa

**“Sagardogileek mahaira ekarriko dute
sagardoa, pitxer edo botila gardenetan”**

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea
urtarrilaren 27tik otsailaren 4ra
(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu)

• **HEZKUNTZA OROKORRA** (Oinarrizko kultur formakuntza: Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, idazketa. Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)


• **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)

• **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR**

• **IKASTURTE AMAIERAKO BIDAIA ATZERRIRA**



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 info@epalasarate.eus



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

EUSKAL HERRI OSOAN ZERBITZU EMATEN DUGU
BEILATOKI GUZTIAK, ERRAUSKETAK

**zerbitzu pertsonala,
eta familia bakoitzari egokituta**
ASEGURU GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU
GURE FUNERARIAARA DEITU ZUZENEAN
ETA DENETAZ ARDURATUKO GARA

943 36 21 63 (24 orduz)



BAZKIDEEN TXOKOA
noaua! euskararen aterpe



Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

Albisteak iruditan

Kafe-kapsulak birziklatzeko kanpaina abiarazi dute Urbilen

Plastikoen arazoa gero eta handiagoa da, “eta guztion esku dago bere eragin kutsatzailea murriztea”. Esan eta egin. Urbilek bi edukiontzi ipini ditu etxeko kafe-kapsulak bildu eta birziklatzera eramateko.

Kapsulak lehengai bihurtuko dituzte eta horrekin edukiontziak fabrikatuko dituzte (100 bat kapsula behar dira etxeko pote bat egiteko).

Berreskuratutako kapsulen kafearen hondarrekin aldiz, hauxe egiteko asmoa du Ekogras-ek: “Perretxiko substraktu batean kafearen hondarrak balorizatu, eta horrekin etxeko auto-hazkuntzarako kit bat egin”.



Udan hasi zuten bilketa kanpaina eta “70.000 kapsula baino gehiago batu ditugu honez gero”.

Bilketa-kanpaina hau udan abiarazi zuten eta erantzuna gero eta hobea dela dio-

te Urbilgo arduradunek: “70.000 kapsula baino gehiago batu ditugu honez gero”.

Laburrean

Usurbil eremu laranja igaro da

100.000 biztanleko 14 eguneko intzidentzia metatua 332,91ra igo da Usurbilen. 300eko muga gainditu denez, Usurbil eremu horitik laranja igaro dela ohartarazi du astelehen honetan Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak.

Tripontzia Muxika eta Beasainera

20.282 eta 13.402 izan dira Gure Eskuren zozketako zenbaki sarituak, Muxikan eta Beasainen saldu dituzte hurrenez hurren. Guztira, 52.000 euro. Irabazien zati bat euskal kulturgintza suspertzeko proiektu batera bideratuko du Gure Eskuk.

Eskubaloi partiden itzulera

Euskadiko txapelketako lehen fasea jokatzeko ari diren Usurbil K.E.-ren bi eskubaloi neurketa larunbatean Oiardon: ■ 16:00etan senior neskak-Eraien Eharialdea. ■ 18:00etan senior mutilak-Basauri.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkartea@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ugaitz Agirre Zapirain

Literatura idaztea, ipuin edo kontakizun bat, lantzerkia edo poesia, ez da inoiz hutsetik sortzen. Beti dago ispilu bat, inspirazio-iturri bat norberaren ideiak argitzen eta garatzen laguntzen dutena. Horregatik, iturri horietako bati buruz idazten jarri naiz.

(Egiari zor, jakin ere ez zeri buruz idatzi, nola idatzi, ezer ez. Urte berriak orri zuriaren aurreko ezintasuna ekarri dit. Kaka!).

Duela astebete argitaratu zen ofizialki (extraofizialki aurreko urte amaieran ikusi baitzuen argia) One Piece komikiaren 1000. zenbakia, eta noski, ospatzeko moduko efemeridea zen. Ez dira asko lau zenbakitara iristen diren komikiak. Bai, hor dago Edogawa Conan detektibea 1000 kapitulu pasata ere oraindik ume bat izaten jarraitzen duena, baina Monkey D. Luffyk ere piraten errege bihurtu gabe jarraitzen du gaur egunean 25 urteren ondoren, beraz inor ez dago lezioak emateko.

Hitz egin dezagun One Piecei buruz? Hitz egin dezagun One Piecei buruz.

Piraten mundu fantastiko batean kokatzen gaitu komikiak, eta protagonista piraten erregea bihurtzea amets duen gomazko mutila dugu, aipatu gisa, Monkey D. Luffy. Bere

Euskara eta fikzioa



“Duela astebete argitaratu zen One Piece komikiaren 1000. zenbakia”.

UGAITZ AGIRRE

“Euskara konfort-eremura mugatuta dugu eta gero hipotetikoki eztabaidatzen dugu isek euskaraz funtzionatzen ote duten, edo euskara batuak, edo erotikak, ez baitugu esperimentatzeko adina fikzio”

abenturetan, aurrean jartzen zaion edonor garaitu behar duen suertatzen da bere azken metara iristeko asmoak baldin baditu, eta horretarako tripulazio bat osatuko du. Zoro, Nami, Usopp, Chopper, Robin, Franky, Brook eta Jinbe (oraingoz) izango dira tripulazio hori osatuko dutenak, horiek ere amets pertsonal bat bete asmoz igotakoak lasto-txapelen itsasontzira.

Baina pertsonaiak ez ziren izan Eiichiro Odaren istorio honetara lotzeko arrazoi nagusia, baizik eta mundua. Egi-

leak sortzen duen munduak badirudi bizitza propioa duela, beti ari dira gauzak gertatzen eta gertakari horien ondorioak protagonistak dauden tokiraino iritsi daitezke uhinen forma hartuta. Eta istorio batean protagonistez gain munduak birak jarraitzen duela sentitzeak sekulako garrantzia izan dezakeela pentsatzen dut, pertsonaiek kontrolatu ezin duten zerbait balitz bezala.

Ondo formulatutako gomen-dioak egiten ez naiz batere ona, inpulsoek eraman ohi naute horrelakoak egitera, baina ikasiko dut, pixkanaka, gomendioak egiten. Abentura eta fantasiazko istorioak gustatzen zaizkionari benetan gomendagarria dela sinesten dut.

Hala ere, One Piecei buruz euskaraz hitz egiten badugu, ez gara komikira bakarrik mugatzen. Marrazki biziduneri buruz ere hitz egin behar dugu. EITBn euskaraz bikoiztuta eman ez balute duela ez dakit zenbat urte, ez dakit pi-

raten istorio horrekin gozatzeko egongo ote nintzen gaur egun.

Paradoxikoki, euskarazko musikari buruzko eztabaida dagoen egun hauetan, galdetzen dut: kanpoan sona gehiago izateko erdaraz egin behar genuke, baina kanpokoak hemen sona gehiago izateko euskaraz ez? Ikusi dut Wonderwoman 1984 euskarara bikoiztu dutela legez-kanpo. Inoiz ez nuen horrelakorik imajinatu, oker ez banago, Bihurriak taldeak the Beatlesen abestiak eta Eganek Queenak euskarara ekartzen zituzten bezala. Munduan ekoizten zena gure eginik. Son Goku euskal gehien-goarentzat euskalduna den moduan.

Greba luze batean daude, ordea, hainbat euskal bikoiztaile. Administrazioari garestia dela irudituko zaio akaso. Eta euskarak mainstream izateko balio ez duelakoan, txaloka hasten gara norbaitek Frozen-en “Let it go” euskaraz kantatzen duenean. Gainontzeko pelikulak, ordea, erdaretan beharko du izan. Euskara konfort-eremura mugatuta dugu eta gero hipotetikoki eztabaidatzen dugu isek euskaraz funtzionatzen ote duten, edo euskara batuak, edo erotikak, ez baitugu esperimentatzeko adina fikzio.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Aldaketak Kalezarko trafikoa, urbanizazio lanek eraginda

Haurreskolaren sarrera eta Pikaolara arteko tartea urbanizatzen hasi dira eta lanak amaitu arte errepidea itxita egongo da. “Otsailaren 5era arte”, udal iturriek aditzera eman dute. “Era berean, Kalezartik Txaparren-Berri baserrira arteko bidea ere etenda egongo da bi astez, horma bota behar baitute”.

Kalezarko trafikoa hainbat aldaketa egin dituzte:

■ Haurreskolaren sarreratik Pikaolara arteko zatia itxita egongo da otsailaren 5era arte.

■ Kalezartik Txaparren-Berri baserrira jaisteko bidea itxita egongo da bi astez.

Haurreskola eta Pikaola arteko zatia

Behin-behineko semaforoek bideratzen dute, egun, kaxkoa eta Kalezar lotzen dituen aldapako trafikoa. “Asteotan ez da semafororik izango, aldapa horren noranzkoa bakarria izango baita: behetik gorakoa.



Haurreskolaren sarreratik Pikaolara arteko zatia itxita egongo da otsailaren 5era arte.

UDALA

“Trafikoari itxita egongo den arren, Pikaolaren ondoko aldapan dauden aparkalekuak erabiltzeko aukera izango da”

Aldapan gora orain itxita dagoen zatiaren bidez egin ahal izango dute autoek, haurreskola ondotik, eta ermitaren parean ezker zein eskuin joan ahal izango dute”.

Usurbilera jaisteko, berri,

Kalezarko kaxkoa zeharkatu beharko dute ibilgailuek. “Trafikoari itxita egongo den arren, Pikaolaren ondoko aldapan dauden aparkalekuak erabiltzeko aukera izango da”, azaldu du udalak.

Kalezartik Txaparren-Berri baserrira jaisteko bidea

Astelehenaz geroztik itxita dago, baita ere, Kalezartik Txaparren-Berri baserrira jaisteko bidea. Horko horma bota behar dute, eta lanak bi astetan amaitzea aurreikusi dute.

Arrisku egoerak Troiako irteeran

Troia eta Txikierdi arteko mendi magala egonkortzen segitzen du Foru Aldundiak. Tarte horretan, errei bat itxita dago. Semaforoek baimendu edo ukatzen dute ibilgailuen joan etorria. Eremu horretan Donostia aldetik etorritik gero Troia aldeko bidera sar daiteke. Baina alderantziz, bide horretatik N-634 errepidera ezin daiteke sartu, Donostia aldera joateko, Usurbil aldera etortzeko soilik. Azken asteotan, zenbait egoera arriskutsu ikusi dira errepide zati horretan, Troiako aldatik Donostia aldera joateko sartzan direlako hainbat ibilgailu, seinaleek argi hala egitea



Troiako aldatik Donostia aldera joateko sartzan dira hainbat ibilgailu, seinaleak hori egitea eragotzi arren.

eragotzi arren.

Sarbide hori ez du semaforo batek kudeatzen, eta areagotu egiten du Usurbil aldetik Txi-

kierdi nahiz alderantzizko bidea egiten ari diren autoren batekin istripua izateko arriskua.

Garbitaniak gidarien lan-poltsa handituko du

Hondakinen bilketarako gidarien lan-poltsa handia-gotzeko hautaketa prozesua abiarazi du Garbitaniak.

Lan baldintzak

■ Lanaldia: Garbitaniak zehazturikoa.

■ Urteko ordainkizun oinarria: 27.567,62 euro.

Eginkizunak

Besteak beste: kamioia gidatu eta hondakinen bilketa atez atekoa duten udalerrietan, kamioiaren mantentze lana, ontzi eta posteen garbiketa...

Bete beharreko baldintzak

■ 16 urte beteak izatea.

■ Eskola-ziurtagiria edo parekoa izatea.

■ Lanpostuko eginkizunak betetzeko gaixotasun edo mugarik ez izatea.

■ 1. hizkuntz eskakizunari dagokion euskara maila, derigorrezkoa.

■ C gidabaimena edo balio-kide baten jabe izatea.

Eskabideak

■ Garbitania Zero Zabor SMren bulegoetan (Lastaola Poligonoa 3, A-12 eraikina, Ereñotzu auzoa Hernani, 20120), 9:00-14:00 artean edo posta bidez aipatu helbidera helarazita.

■ Epea: urtarrilak 25.

Hautaketa prozedura

Bi faseetan: oposizio aldia (60 puntu) eta lehiaketa aldia (40 puntu). Deialdien hitzorduak garbitania.eus orrialdean argitaratuko dituzte.

Informazio gehiago:

garbitania.eus

Ostalaritzako establezimenduek 1.000 euro arteko dirulaguntzak jaso ditzakete

Udalaren dirulaguntza eskaintza honek xede hau du: azaroaren 6ko dekretuak agindutako itxieraren ondorioei aurre egitea. Ekimen honi esker, 1.000 eurora arteko dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte ostalaritza establezimendu eta jatetxeek. Eskaerak aurkezteko epea urtarrilaren 28an amaituko da.

Covid-19ak eragindako osasun krisiari eusteko, establezimenduen itxiera dekretatu zuen Eusko Jaurlaritzak azaroaren 6an, eta itxiera horrek eragindako kalteei aurre egiteko sortu du Udalak dirulaguntza berria. “40.000 euro bideratuko ditu egitasmo honetara, eta 1.000 eurora arteko laguntzak jasoko dituzte eskatzaileek”. Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean daude irakurgai eta urtarrilaren 28ra bitartean izango dute interesdunek laguntza eskatzeko epea.

Larrialdi ekonomikoko egoera kontuan izanda, “kaltetutako ostalari eta zerbitzuei jarduera berrabiarazten laguntzeko eta bultzada emateko sortu ditu laguntza horiek



Pandemia hasi zenetik, eskutik joan dira ostalariak eta Udala.

DIRULAGUNTZA LERROA

“Urtarrilaren 28ra bitartean izango dute interesdunek laguntza eskatzeko epea”

udalak”. Guztira, 40.000 euro emango ditu dirulaguntzetan, baina kopuru hori handitu daiteke, oinarrietan zehaztu dutenez: “Hala ere, eskabideen kopurua eta zenbatekoa

dirulaguntzetara bideratutako kopurua baino handiagoa bada, Usurbilgo Udalak zenbateko hori handitu ahal izango du, bere finantza-erabilgarritasunaren arabera”.

Bi baldintza

Eskatzaile bakoitzak 1.000 euro jaso ahal izango ditu, gehienez. Kopurua bi baldintzen arabera aldatu ahal izango da. Batetik, establezimendu eskatzaile guztiek kopuru finko bat jasoko dute: 700 euro. Bestetik, 300 euro osagarri jaso ditzake-

te, jardueraren ohiko funtzionamenduarekin lotutako hornidura udalerrian kokatutako txikizkako saltoki edo enpresetan egiten badute. Neurri horren helburua udalerriko ekonomia zirkularra eta saltoki txikiak sustatzea da.

Eskaera egiteko prozedura

Bi modutara egin daitezke eskaerak: udalaren zerbitzu digitalen bidez, edo udalean bertan, 943 37 19 51 telefonora deitu eta hitzordua aurrez hartuta.

Ordenantza fiskalen 2021eko egutegia

2021eko ordenantza fiskalen egutegia hasieraz onartu zuen udalbatzak azaroa amaierako osoko bilkuran. Aurtengoan berezitasun nabarmen bat izango du; bizi dugun ezohiko testuingurua dela eta, ordenantza fiskaletan ez da igoyerarik aplikatuko.

Hemen duzue noiz zer ordaindu beharko den zehazten duen egutegia:

■ Urtarrilak 4-29: asteroko

merkatuaren erabilpen-tasa; aurreko urteko 4. hiruilekoa.

■ Otsailak 1-martxoak 15: ura, estolderia eta hondakinak; aurreko urteko 4. hiruilekoa.

■ Martxoak 1-apirilak 15: trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga.

■ Apirilak 5-30: asteroko merkatuaren erabilpen tasa: urteko 1. hiruilekoa.

■ Maiatzak 3-ekainak 15: ura, estolderia eta hondakinak; ur-

teko 1. hiruilekoa.

■ Maiatzak 14-uztailak 1: ondasun higiezinaren gaineko zerga.

■ Uztailak 1-30: asteroko merkatuaren erabilpen tasa: urteko 2. hiruilekoa.

■ Abuztuak 2-irailak 16: ura, estolderia eta hondakinak; urteko 2. hiruilekoa.

■ Irailak 1-urriak 1: espaloian zehar ibilgailuak sartzea (badoa).

■ Urriak 1-azaroak 10: ekonomia jardueren gaineko zerga.

■ Urriak 1-29: asteroko merkatuaren erabilpen tasa: urteko 3. hiruilekoa.

■ Azaroak 2-abenduak 16: ura, estolderia eta hondakinak; urteko 3. hiruilekoa.

■ Azaroak 2-30: bide publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik tasa (beladoreak, kutxazain automatikoak...).

■ Azaroak 2-30: emakida administratiboak (Atxega Jauregia, udal baratza...).

Taldeakako kirol-jardunari debekua kendu diote

Kirol-instalazioetarako irizpide eta baldintza berriak onartu ditu Eusko Jaurlaritzak eta, horri esker, zenbait aldaketa izango dira Usurbilgo kiroldegian eta, oro har, kirol-jardunean, intzidentzia tasa 500etik behera mantentzen den bitartean. Neurri berrien artean, Eskola Kiroleko entrenamenduen eta kirol federatuen lehiaketaren itzulera dira nabarmentzekoak. Herriko talde eta klubak azken neurri horietara egokitzeko lanean ari dira, jarduna ahalik eta azkarren berriktatzeko asmoz.

Eskola Kirola

Eskola Kirolari dagokionez, seiko talde egonkorretan eta maskarak jantzita itzuli dira (iragan ostegunean hastekoak ziren batzuk). Izatez, etenaldiaren aurretik ere hala ari ziren lanean eta ez du aldaketa handirik ekarriko.



Eskola Kirola eta Kirol Federatua martxan dira berriro ere.

KIROLDEGIKO IKASTAROAK

“Kiroldegiaren edukiera %50era igotzea baimendu du azken dekretuak”

Kirol Federatua

Lehiaketan “murgilduta” dauden kadete, jubenil eta senior kategorietako taldeek ez dute seiko taldeen muga izango: federazio bakoitzak berea adostu behar duen arren, Buruntzal-

dean erabaki dute lehiaketa egutegia duten taldeek federatu dutela eta ez zaiela seiko taldeen muga jarriko. Horrez gain, orain arte bezala, profesional eta semi-profesional gisa aritu direnek ohiko entrenamenduekin jarrai dezakete. Orain, protokoloak egokitzea dagokie kirol talde eta klubei, kirol-zerbitzuei helarazi eta ontzat eman dezaten.

Jarduera hori guztia ber-

tan behera geldituko litzateke Usurbil eremu gorri pasatuko balitz, intzidentzia tasa 500 puntutik gora kokatuz gero: astelehen eta ostegunetan argitaratzen da eremu gorri pasatutako herrien zerrenda, eta hori gertatuko balitz, kirol-zerbitzuek jakinaraziko die klub eta taldeei saioen etetea.

Kiroldegiko ikastaroak

Edukiera %50era igotzea baimendu du azken dekretuak, eta azken hilabeteetan ezarritako txandakako sistema kentzea ahalbidetuko du horrek: kide guztiek parte hartu ahal izango dute arauak betez eta segurtasun neurriak bermatuta. Horien kasuan, Usurbil eremu gorri pasatuko balitz, mantentzeko aukera egongo litzateke, berriz ere neurri murriztaileen arabera egokitzenak enginda.

Mendekotasunen bat duten adingabeen familientzako laguntzak lehenbailehen bideratzeko eskatu dio PSE-EEK EHBilduri

Patxi Suarez zinegotzi sozialistak mota honetako laguntzak bideratzea erregulatuko duen araudi-proposamen bat aurkeztu dio EHBilduri.

2021eko udal aurrekontuen inguruan PSE-EEK eginiko zuzenketetako bat izan zen hauxe. Zuzenketa onartua izan zen eta “laguntza horiek emateko 6.000 euroko partida bat horretara bideratu zela” dio alderdi sozialistak. Laguntza-leerro honen helburua da “mende-

kotasuna edota desgaitasunen bat duten adingabeek euren familian, eskolan eta gizartearen integratzea ahalbidetuko duten tratamenduak babestea, adingabe horien autonomia pertsonala sustatu ahal izateko”.

Patxi Suarez zinegotzi sozialistarentzat “garrantzitsua da toki-araudian tratamendu hauek finantziazio-xede gisa jasotzea: fisioterapia, errehabilitazio funtzionala, logopedia, estimulazio kognitiboa eta

sentsoriala, eta psikomotrizitatea”. Laguntza eskatu ahal izateko, “familiek Osakidetzako pertsonalaren justifikazioa eduki beharko dute. Justifikazio horretan diruz lagundu beharreko tratamenduaren beharra dutela adierazi beharko da”, dio PSE-EEK.

“Gure eguneroko bizitzan oinarritzko jarduerak egin ahal izatea funtsezkoa da, eta are gehiago autonomia lortzen ikasi behar duen mendekota-

sun- edo desgaitasun-egoeran dagoen adingabe baten kasuan”. Laguntza hauen bidez, hain zuzen, “adingabe horien autonomia sustatu nahi da euren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko”, azaldu du Patxi Suarezek prentsa-ohar bidez. Hortaz, araudi berria indarrean jartzea eskatu dio udal-gobernuari, “Usurbilen erroldatuta dauden familia horien premia eta berehalako beharrei erantzun ahal izateko”.

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

ETXETRESNEN KONPONKETA-SALMENTA
MARKA GUZTIAK
DESHUMIDIFIKADOREAK ERE BAI!
645417665
xabier

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

GAR GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
628 45 78 39
reformasmonroy@hotmail.es
TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL

Txalapartaren mintzoa bere egin zuen poeta

Joxan Artze hil zela hiru urte bete ziren urtarilaren 12an. Urteurrenaren atarian, Elkarrek Txalaparta, tradizioaren abaroan (Elkar) izeneko liburua plazaratu zuen. Poeta usurbildarraren hilonoko lehena da.

Duela urte batzuk abiatu zen liburu honen edizioa. Elkar argitaletxea txalapartari buruzko lan bat argitaratzekoa zen eta hitzaurre bat idaztea eskatu zioten Joxan Artzeri. Idazten hasi eta enkargu labur bat zena korapilatzen hasi zen. 'Hitzaurreak', azkenean, liburu izaten amaitu du.

Abiatu, halaxe abiatzen da liburua. Txalapartaren inguruko datu jakingarri asko ematen ditu. Irakurketan aurrera egin ahala, poemak agertzen hasiko dira eta txalapartatik haratago



Txalaparta, tradizioaren abaroan (Elkar) liburua duela aste batzuk aurkeztu zuten.

ARTZEREN BERRIENA
"Txalapartaren inguruko datu jakingarri asko ematen ditu. Poemak eta bestelako hausnarketak ere jaso dira liburuan"

doazen hausnarketak loratuko dira. Tradizioari edota zientzia-

ri buruzkoak. Hortaz, txatal ezberdinez osatutako liburu dela esan daiteke. Badu saiakeratik, badu historiatik, badu memoriatik, badu poesiatik eta, nola ez, badu ispiritualtasunetik.

Txalaparta, tradizioaren abaroan (Elkar) argitalpenaren beste ezaugarri bat haxe

da: hil bezpera arte egon zen liburu ontzen, baina ez zuen amaitzerik izan. Eta zegoen bezala plazaratu du Elkarrek. Amaitu gabeko esaldiekin eta zalantzazko puntuazio markekin. Ohar ugari daude eta horiek ere bere horretan utzi dituzte. Traba baino, idazlearen sormen prozesua hobeto ulertzeko zantzuak direla esan daiteke. Dena den, amaitu gabe egonik ere, ez zitzaion asko faltako. Maketazio oharrak zehaztuta utzi zituelako.

Txalapartaren ttakuna, zaldiaren lauhazkarena

Joxan Artzerentzat, txalapartaren doinua, txalapartaren ttakuna, zaldiaren lauhazkarena da. Ideia hori hitzez eta poemaren bitartez iradokitzen du liburu honetan, behin eta berriro.

"Ugarte baserria izan genuen lehen txalaparta tailerra"

Pasarte biografikoak ez dira falta Joxan Artzeren liburu berrian. "Zortzi bat urte nituela entzun nuen lehenengo, handik urte askotara txalaparta zela jakingo nuen zera bitxi hura", dio liburuaren hasieran. "Herriko urteko jaietan izan zen, zaindari eguna eta asteburu artean jai-egitarautik landa geratu ohi diren egun horietako batean: ezer ez eta pesta. Ez zen ume faltarik izaten enparantzan. Arratsaldea zen. Aurretik iragarri gabe, hor ikusten ditugu, jatz bana jotzen zutenentzat ipinirik zegoen oholtzara herriko bi baserriar igotzen; bi lepotar ahoz behera jarri, gainean arto-orri sorta bana eta hauen gainean ohol bat, eta honi bina makilekin goitik behera ukaldika ekiten. Hura entzuteak sekulako zirrara gozoa egin zidan barruan, oso barruan. Ez dakit zurean hots gozoagatik edo



Ugarte baserria Artze anaien lehen entsegu-lekua izan zen.

JOXAN ARTZE
"Ugarte baserriko Erramun adiskideak ganbara utzi zigun lehen saioak egiteko"

ordura arte inoiz entzun ez bezalako taupada berezi haiengatik; biongatik ziurrenik. Ez nau beste soinuak horren barrenki inoiz hunkitu". Ez zuen ondoko urtetan gehiago entzun. Urteen poderioz, gogotik ere joan zitzaiola aitortzen du Artzek.

"Handik hamazazpi bat urtera, lehenetako euskal dokumentala zela eta, 'Pilotari' dokumentala ikustera joan nintzen, eta horra non entzuten dudan berriro, eta berriro bizi, hainbat urte lehenago entzun nuen zera bera. Zer zen hura galdetu, eta txalaparta zela, zeinek jotzen zuten eta Zuaznabar anaiek, nongoak ziren eta, Lasartekoak. Hau duk, hau, gure herritik hiru kilometrora bizi eta nik ezagutzen ez! Horren ezkutuan gorde behar izaten zen garai haietan

euskal usaina zuen zernahi".

Anaiari txalapartaren berri eman eta hari ere berehala piztu omen zitzaion soinu-tresna hura ezagutzeko gogo. Lasarte-Oriako Sasoea baserrian, Zuaznabartarren sortetxe baserrian hasi ziren Migel eta Pellorekin txalaparta ikasten. "Bihar-munean", azaltzen du Artzek liburuan, "Ugarte baserrira joan eta bertako nagusi Erramun adiskideak bere baserri handian dolarea zeukaten ondoko ganbara utzi zigun saioak egiteko; baita sagarra hestutzeko erabiltzen zituzten patsoholen artetik txukuntxoena hautatzeko aukera eman. Hura izan genuen lehen txalaparta arigia edo tailer-atelierra. Geuk eramane genituen makilak, zurgin adiskideak eginak. Handik aurrera, jo eta jo zura zurez".

Azken hilabetean izandako lapurretei lotuta hiru pertsona atxilotu dituzte

Hiru pertsona atxilotu dituzte hainbat autotan lapurretak egin dituztelakoan. Joan den aste-ko asteazkenean egin zituzten atxiloketak, astelehenetik astearterako gauean izandako lapurreten ondoren.

Hainbat lagunek salatu dute autoan lapurretak jasan izana, edota ezer eraman gabe kristala apurtu izana. Herria gabonetan pentsatzen jarrita zegoela hasi ziren autoan lapurretak egiten. Herriko hainbat puntutan egin dituzte lapurretak, denetarikoa autoetan. Hilabete beranduago egin dituzte atxiloketak udaltzainek Ertzaintzaren babesarekin.



Autoetan eginiko lapurretekin zerikusia dutelakoan atxilotu dituzte. Argazkia: Udala.

Herritar bat: “Ez zuten ezer eraman. Ez dut inoiz baliozko ezer uzten autoan”

Hainbat izan dira lapurretak salatu dituztenak, eta denetarikoa testigantzak eskaini dituzte. Bere izena anonimotasunean gorde nahi duen gizonezko batek haxe azaldu dio NOAUA-ri: abenduaren 28an goizeko 5:00etan lanera joateko autora sartu zenean, gidariaren eskuin aldeko kristala erabat apurtuta aurkitu zuela. Euria egin zuen gau hartan, eta kristal zatiak autoan zabaldua egoteaz gain, eserlekua erabat bustita aurkitu zuen. Halaxe joan behar izan zuen lanera. “Behintzat autoaren seguruak ordaindu zuen kristalaren konponketa”, horixe egoera horretatik

HERRITAR BATEN LEKUKOTZA
Abenduaren 28an, lanera joateko autora sartu zenean, gidariaren eskuin aldeko kristala erabat apurtuta aurkitu zuen. Ez zuten ezer ere eraman. “Behintzat autoaren seguruak ordaindu zuen kristalaren konponketa”

atera duen irakurketa positiboa bakarra. “Ez zuten ezer ere eraman. Izan ere, ez dut inoiz autoan ez dirurik ez baliozko ezer uzten”. Herritar honek ez zuen gertaera Udaltzaingoan

salatu, ez baitzekien ziur lapurreta egiteko ideiarekin sartu ote ziren bere autoan edo norbaitek “nahi gabe” izandako istripu bat izan ote zen. Egun batzuk beranduago, jende gehiagoren testigantzen berri izan ondoren jakin zuen berea ere halako kasu bat izan zela.

Beste herritar bat: “Beti izaten ditut txanpon batzuk autoan eta horiek eraman zituzten”

Beste emakume batek Udaltzaingoari gertatutakoaren berri eman zion duela egun batzuk. Ia alderantzizkoa gertatu zitzaion emakumeari. Auto asko aparkatuta egoten diren leku batean utzi zuen berea. Hurrengo egunean, autoa hartzera joatean ez zuen ezer

berezirik sumatu kanpotik, baina barrura sartzean konturatu zen norbait ibilia zela bertan. Kristala osorik zeukan, eta beraz, beste moduren batera sartuko zirela uste du. Gidariaren alboko eserlekuan autoaren agiriak botata aurkitu zituen eta erabat nahastuta. Atzeko aukietan txamarra baten barrukoak izan zitezkeen lumak aurkitu zituen, eta eserlekuak bustita zeuden. Norbaitek bertan lo egin ote zuen pentsatu omen du behin baino gehiagotan. “Autoan beti izaten ditut txanpon batzuk, eta horiek eraman zituzten. Gutxienekoa izan zen hori. Eskerrak maleategia ez zuten ireki edo ez ziren konturatu bertan zerbait eduki nezakeela”, azaldu digu lekuko honek.

Zantzu desatseginak

Zantzu gehiago ere aurkitu zituen, eta hori da gutxien gusatu zitzaiona: “Nazka gehien eman zidana eserlekuetako batean ahotik botatako bonboi nazkagarri bat aurkitu izana da. Norbaitek bonboi bat ahoan ibili, nahi beste hozka egin eta plasta hori eserleku batean utzi zidan. Inoiz ez dut ulertuko hori egiteko arrazoia”, aitortu du emakumeak.

Kasu gehiago izan dira

NOAUAk jakin duenez, ez dira kasu bakarrak izan. Jende gehiagok salatu du baliozko gauzak lapurtu eta autoko kristalak apurtu dizkietela.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 28/17
20170
USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Antonia Correyero: “Eskerrak eman nahi dizkiet Peña Pagola elkarteko kide guztiei”

Antonia Correyerok 23 eman ditu Kalezarreko Peña Pagola elkartea garbitzen. Urteetako lanaren ostean, erretiroa hartu behar izan du, baina oso esker oneko agertu da elkarteko kideekiko. Elkarteko bazkideak baino lagunak aurkitu zituen elkarrean, eta ezin gusturago egin ditu urte horiek guztiak.

NOAUA! Zergatik erabaki duzu erretiroa hartzea?

Antonia Correyero: Joan zen urteko urtarilean hartu behar izan nuen erretiroa. Nik ez nuen hala izaterik nahi, baina elkarteko burua kontratua berritzera joan zenean, nire adinagatik ez zieten gehiago luzatzen utzi. Beraz, gogoz kontra erretiroa hartu behar izan nuen. Negar eta negar aritu nintzen berria eman zidatenean, eta datozen egunetan ere bai.

Gustura zeunden bertan, ezta?

Bai, benetan gustora. Nik ia ez nuen lan gisa hartzen ere, hobby bat zen gehiago. Itxi zuten arte Mojen Konbentua ere garbitzen nuen, baina ez zeukaten zerikusirik bi lanek. Mojekin ez nengoen horren gustora, lan egin behar nuen dirua behar nuelako familia kontuengatik,



Antonia Correyerok 23 urte egin ditu Kalezarreko Peña Pagola elkartea garbitzen. Urteetako lanaren ondoren, erretiroa hartu behar izan du.

ANTONIA CORREYERO

“Nire etxea balitz bezala garbitzen nuen elkartea, nolabait horixe baitzen; nire bigarren etxea”

baina lan gogorra zen eta giroa oso hotza. Elkartean berriz, izugarrizko berotasuna aurkitu nuen, bazkideekin egoten nintzen askotan. Nire bigarren familia ziren. Bizipen asko partekatzen nituen haiekin, eta kafetxo bat hartzen genuen giro

onean. Askoz gustorago egiten da lan horrela. Garbitzera joan eta lagunekin une atseginak pasatzea ezinbestekoa da lan giro ona izateko. Nire etxea balitz bezala garbitzen nuen elkartea, nolabait horixe baitzen; nire bigarren etxea.

23 urte, azkar esaten da. Gogoan dituzu oraindik lehen egunak?

Bai, gogoan dut nola esan zidaten ea elkartea garbitu nahi nuen. Momentu ekonomiko

delikatua pasatzen ari nintzen orduan, eta Mojen Konbentuan egiten nuen lan. Ezagunak nituen elkarteko bazkide batzuk eta garbitzaile lanetan aritzea proposatu zidaten formalki. Segituan esan nien baietz, eta lanean hasi nintzen. Lehen momentutik aurkitu nuen goxotasun ederra bertan. Ordutik egunero-egunero joan naiz Elkartera. Urtean bi asteko oporraldia izaten nuen, eta askotan hala eta guztiz ere, bertara joaten nintzen kideekin egotera.

“Behin lapurrak harrapatu nituen barruan”

NOAUA! Bi lan batera egiteko egunero ordu asko sartuko zenuen, ezta?

Antonia Correyero: Bai, hasieran bi lanak egiteko ordu asko ziren. Goizean goiz elkartera joaten nintzen, eta orduan hasten zen nire lan eguna. Batzuetan, ordu horietan jendea egoten zen bertan, asteburuetan, batez ere. Behin Elkarteko lanak bukatuta Konbentura joaten nintzen. Asko-

tan pentsatzen nuen noizbait erabaki bat hartzeko momentua iritsiko balitz zer egingo nukeen, bietako bat utzi behar izango banu: Konbentua utziko nukeen ezbaierik gabe.

Urteotan gauza asko gertatuko ziren elkartean, ezta?

Behin lapurrak harrapatu nituen barruan. Goizean goiz, lanera nindoan eta barruan argia piztuta ikusi nuen. As-

teburuetan kide asko goizeko ordu txikitari zerbait hartu eta hizketan edo kartetan aritzen ziren, eta beraz, ez zitzaidan arraroa iruditu goizeko 4:00ak aldera barruan jendea egotea. Gazte kuadrila bat zirudien, eta egun onak eman nitzkien beti egin ohi nuen modura. Halako batean korrika alde egin zuten gazteek. Tabako makina irekita zegoela konturatu nintzen, eta dirua lapurtzeko as-

moarekin zebiltzala. Oihuka hasi nintzen orduan. Nik ez ditut bazkide guzti-guztiak ezagutzen, eta kideren baten semeak lagunak gonbidatuko zituela pentsatu nuen. Datozen egunetan beldur pixka batekin joaten nintzen lanera. Nik haiek ez nituen ezagutzen, eta ez nituen ongi ikusi. Haiek ni, ordea, bai. Beldur nintzen zerbait egingo ote zidaten.

“Betirako eramango zaituztet bihotzean”

NOAUA! Gauza asko bizi izan dituzu elkartean, beraz.

Antonia Correyero: Bai, denetik. Hogeita hiru urtetan jende berria sartu da elkartean, baina beste zenbaitek utzi ere egin gaituzte. Min handiz agurtu behar izan ditugu batzuk, baina haiekin bizitako onenarekin geratu gara. Jada ez daudenei, horien familiei eta oraindik elkarteko kide izaten jarraitzen duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet nirekin horren ongi portatu izanagatik. Benetan, mila-mila esker urte hauetan guztietan horren ongi tratatu nauetenei, eta nirekin une on eta txarrak partekatu dituzten guztiei. Betirako eramango zaituztet bihotzean.



“Mila-mila esker urte hauetan guztietan horren ongi tratatu nauetenei”, azaldu digu Antonia Correyerok.

Eskertze-gutuna, eskari-gutuna, salaketa-gutuna, erantzun-gutuna,
aldarrikapen-gutuna, kexa-gutuna...

Idatzi zure gutuna eta bidali
erredakzioa@noaua.eus helbidera!

noaua

NOAUA aldizkaria, usurbildarren zerbitzura

Sagardoa, aurten, txotxetik mahaira

Urte garai honetarako dagoeneko sagardotegiek zaletuez gainezka behar zuten honez gero. Ilara luzeak edari berria dastatzeko irrikan. Jendetza mahaien bueltan, kupeletan. Pandemiaren gaude ordea eta halako irudirik ez da errepikatuko aurtengoan. Txotx denboraldi berria izan izango da, baina oso ezberdina, covid19ak eragindako osasun krisialdiagatik.

Aurtengoan sagardotegieta-
ra joan ahalko gara bai, baina ezingo gara bertan aurrera eta atzera nahi bezala ibili. Aurten sagardoa txotxetik mahaira zerbitzatuko digute, botila edo pitxer gardenetatik eserita garelako edan ahalko dugu. Euskarri hauek izango dituzten txartelen bidez gainera, ze kupeletako sagardoa, sagardo hau zer sagarrekin ekoiztua den... xehetasun horiek biltzen dituen informazioa eskuratu ahalko dugu. QR kode bat ere izango dute, eta bertan jaso ahalko ditu azalpen gehiago. Hala, sagardoa kontsumitzeko modu berritzailea jarriko dute martxan, era berean “antzinako kontsumitzeko modua berreskuratzeko pausoa” ere izango dela nabarmendu duten arren. “Otorduan zehar, pitxarra be-



Asteartean, Donostiako Kursaalaren azaldu zituzten aurtengo txotx garaia inguruko xehetasunak. Argazkia: Euskal Sagardoa. Azaleko argazkia: Petrítegi.

TXOTX GARAIA

“Otorduan zehar, pitxarra betetzera altxa ahal izango da mahai bakoitzeko arduraduna”

tetzera ere altxa daiteke mahai bakoitzeko arduraduna, eta sagardogilearen laguntzarekin beteko du taldeak dastatu nahi duen edo sagardogileak gomentatzen duen kupeleko sagardoa.

Hala aurreratu dute aste hasieran, urtarrilaren 19an Donostiako Kursaalaren sagardoaren sektoreak egindako

agerraldian. Ezohiko egoera honi elkarlanetik erantzun diote. “Egoera zail honen aurrean eta muga guztien aurrean lanearako gogoia, ilusioa eta pasioa elkartuta” agertu ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako sagardogile guztien ordezkariak prentsaurreko horretan; Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako ordezkariak, baita hiru herrialdeotako sagardogileen elkarreketako kideak ere. Protokolo zehatz bat landu dute, une honetako araudira egokiturikoa, sagardotegietako bisitak modu seguruan egin ahal izateko “eta aldi berean eskaintza erakargarri bat eskaintzeko”.

“Gorputz ederreko sagardoa”

Datorkiguna hain zuzen, “izaera eta gorputz ederreko sagardoa” omen da. “2020a sagar urte txikia izan da Euskal Herrian kopuruz, eta izaera handikoa edukiz. Sagardoek ere hori erakusten dute, izaera eta gorputza”. Horregatik “uzta oso berezia eta ona dastatu ahal izango du kontsumitzaileak sagardotegi denboraldian, konplexutasun handiko sagardoa”. 2 milioi kilo sagar pasatxorekin, 1,2 milioi sagardo ekoitzi dira EAEko 48 sagardotegi eta 248 sagargilearen sagar biltzen dituen Euskal Sagardoa Jatorri Deiturapean.

Bazkarietarako soilik zabalik

Aipatzen genuen moduan, dagoeneko sagardotegiek txotx bolada betean izan behar zuten. Pandemiaren eraginez aurten zertxobait atzeratuko da denboraldia. Iaz arte, urtarrilaren erdialdean egin zuten irekiera ospakizuna eta egun horretan bueltan zabaltzen zituzten sagardotegiak. Denboraldiaren hasiera ofiziala otsaileko lehen ostiralerako, hilaren 5erako iragarri dute aurten; bi egun lehenago, otsailaren 3an, As-

tigarragan ospatu ohi duten Sagardo Berriaren Eguna. Sagardotegiek beraz, egun horren bueltan, batzuk lehenago besteak beranduxeago zabalduko dituzte ateak, ezohiko segurtasun eta prebentzio neurrien artean.

Eta ordutegi berriarekin; orain arte sagardotegietara noiznahi bazkaldu nahiz afaltzera joateko ohitura genuen. Erlojuari gehiegitan begiratu gabe ibiltzen ginen. Pandemia garai honetan

ordea, dakizuen momentuz 22:00etarako finkatua dago etxeratze agindua. Ostalaritza sektoreko establezimenduek iluntzeko 20:00etan dute itxiera agindua. Eguntan ordea etxeratze agindua 20:00etara gutxienez aurreratzeko nahia agertu dute Eusko Jaurraltzatik. Ikusteke dago zer gertatuko den. Argi denez, testuinguru honetan ezinezkoa izango da sagardotegira afaltzera joatea. Horregatik, soilik bazkariak

zerbitzatuz hasiko dute ezohiko txotx bolada berezi hau.

Seiko kideeko taldeetan bazkaldu ahalko da, aipatu moduan eserita, finkatuak dauden segurtasun distantziak errespetatuta eta sagardoa mahaitik mugitu gabe edan ahalko dugu. “Sagardotegiak espazio zabalak dira, eta aukera handia ematen digute segurtasuna bermatu eta sagardotegiko esperientziak modu erosoan gozatzeko”.

Gertuagoko bonu batzuk oraindik ere eskuragarri

Gertuago kanpaina arrakastatsua izan da azken hilabete hauetan. Herriko hainbat saltokik eta mota guztietako enpresek parte hartu dute, baina oraindik ere bonu batzuk geratzen dira nahi dituztenentzat. Gabonak jada joan zaizkigu eta asko beherapenei begira jarrita egongo diren honetan, herriko produktu eta zerbitzuak oparitzea ezin egokiagoa izan daiteke.

Gogoratu, %20ko deskontua dela kanpaina honek bul-tzatzen duena. Hona hemen oraindik aukeran bonuak dituzten komertzioak:

Okindegia eta dendak

Elikadura dendetan oraindik ere aukera zabalak daude okindegietan batez ere: Aizpurua Okindegian, Opil Goxon, Herrikobarra Okindegian (Labe Goxo) edota Laukote Okindegi-kafetegian. Gainerako elikadura komertzioetan ere bada aukerarik Imanol Txapartegi harategian edota Al-Rai fruta eta janari dendan.

Tabernak, jatetxeak eta sagardotegia

Covid-19aren ondorioz kolpe latza jasan du ostalaritzak, baina berriz taberna eta jatetxeak irekita daude neurri murriztaileekin. Ostalaritza ez da bere momenturik onena pasatzen ari, eta laguntza handia izan liteke herriko taberna, jatetxe eta sagardotegientzat bonuak oparitu edo erostea. Jatetxeen artean, Zumeta, Antxeta eta



Gertuago kanpaina bitan egin da eta harrera ederra izan du. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

GERTUAGO

Herriko hainbat saltokik parte hartu dute. Toki batzuetan agortuta daude baina beste batzuetan bonuak geratzen dira oraindik eskuragarri

Atxega Jauregiak oraindik badituzte bonuak aukeran, bai eta Aginagako Sekaña Erre-tegiak ere. Tabernei dagokienean, Txiriboga, Bordatxo eta Txirristra daude hirigunean, Arrate Aginagan eta Gure Elkartea Santuenean. Sagardotegien kasuan, Santueneako Aialde Berrik sagardo botilak eskaintzen ditu kaxatan bonu bidez erosteko. Aginaga Sagardotegian ere bada afari edo

bazkari politen bat egiteko aukera geratzen zaizkien bonu apurak aprobetxatuta.

Konponketak

Arropa, mertzzeria, lurrindegia, oinetakoak eta orokorrean modari lotutako osagarriak saltzen dituzten komertzioen artean, Aldamu konponketetan oinetakoak konpontzeko aukeran daude hainbat bonu.

Estetika zentroak

Ile-apaindegi eta estetika zentroei dagokienean, Anais Estilistak eta Ane Ile-apaindegiak eskaintzen dituzte bonu batzuk gabonak gainean direla eta apain-apain jarri nahi duten horientzat.

Loradendak

Elkar ikusteko arazoak dauden

garai hauetan loreak oparitzea ere nahiko ohiko bilakatzen ari da, eta horretarako bonuak geratzen zaizkie oraindik ere Urteina loradendan.

Farmaziak

Neguak ustekabeen harrapatu gaituen honetan, hotzeria eta bestelako birusak harrapatzea nahiko ohikoa izaten da, eta gisa honetako gaitzei eta bestelakoei aurre egin eta osasuna zaintzeko Amenabarren bonu batzuk badaude oraindik erabilgarri.

Bestelakoak

Burindegian edo etxerako produktuen beharra dutenek oraindik ere eskuragai dituzte hainbat bonu Juantxo Burindegian eta Bazar China saltokian.

Pelaioeneko parte hartze saio berriak

Kalezarko Pelaioenean kokatuko diren Emakumeen Etxea eta kalezartarren auzo ekipamenduen egitasmoak definitzeko parte hartze saio berriak iragarri ditu Udalak datozen asteotarako:

Urtarrilak 28, osteguna

■ 18:00 Artzabalen: Emakumeen Etxeari lotutako 4. go-goeta gunea.

■ Gaia: “espazioaren antolaketa-arako proposamena eta Pelaioenearen kudeaketa ere-

dua eta funtzionamendua”.

Otsailak 4, osteguna

■ 18:00 Haur Eskolan: kalezartarren auzo ekipamenduari lotutako 3. gogoeta gunea.

■ Gaia: “espazioaren antolaketa-arako proposamena eta Pelaioenearen kudeaketa erdua eta funtzionamendua”.

Deitzailea: Usurbilgo Udala.

Erraustegiaren berehalako itxiera eskatu du GuraSOsek

Urtarrilaren 12ko sutea bezperan, astelehenean hasi zela, jada hirugarren sutea dela eta guztira, erraustegiaren bueltan izandako zazpigarren ezbeharra dela berri eman zuen GuraSOsek agerraldi bidez iragan astean Donostian. Bermerik gabe lanean ari den erraustegia berehala geratzeari exijitu zuten.

Azken orduotan erraustegian izandako suteari buruz bildu ahal izan zuten informazioa eskaini zuen GuraSOsek Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egindako agerraldian. Batetik sute hau ez da Zubietako gaineko azpiegituran jazotako lehenengoa izan, GuraSOsen esanetan hirugarrena da jada. “Hau baino askoz larriagoa izan zen sute baten berri izan dugu, duela hilabete batzuk gertatu zena. Zehaztapenak ditugunean zehazki noiz izan zen berri emango dugu. Hirugarren sute bat izan zen duela aste gutxi, hau ez hain larria”, Joseba Belaustegik hedabideei azaldu zenez.

Iragan asteko suteari dago-kionean, “hondakinen gordailuan” piztu zen, baina ez SOS Deiak-ek berri eman zuenean,



Bermerik gabe lanean ari den erraustegia berehala geratzeari exijitu zuten.

GURASOS

“Sutea hondakinen gordailuan piztu zen, baina ez SOS Deiak-ek berri eman zuenean, bezperan baizik”

bezperan, astelehenean baizik GuraSOsek berri eman duenez. Langileak aritu ziren sutea itzali nahian, lehendik ere gertatu diren suteetan bezala, aipatu elkartearen esanetan. Langileok ordea “ez dute gaitasun eta formakuntza nahikoa halako lanak egiteko”. Horregatik suhiltzaileen laguntza behar izan zuten. “Oraindik ez dago guztiz itzalita, ke gutxiago ateratzen

ari da baina ateratzen segitzen du”. Zaldibarren ikusi genituen irudiekin parekatu zuen GuraSOsek erraustegian gertatzen ari dena. “Honek Zaldibarren bigarren partearen aurrean gaudela erakusten du”. Hondakinen gordailuan gertatu eta itzaltzen ez diren suteak.

“Hemen akats sistemiko bat dago”

Hiru sute hauei, urteotako beste bost istripu larri erantsi behar zaizkie. Besteak beste, iazko maiatzean erraustegiko eremutik Arkaitzerrekara isuritako amoniakoa, ehunka arrain hil zituen edota transformagailuan izandako leherketa eta matxurak. Argi esan

du GuraSOsek, “hemen ez gaude zorte txarraren edo istripu isolatuen aurrean. Hemen akats sistemiko bat dago”, Belaustegik salatu duenez. Eta GuraSOsen esanetan akats sistemiko horrek azalpen argia du. “Segurtasuna, ingurumena eta osasunaren gainetik interes pribatu eta ekonomikoak jartzen ari direlako”.

“Interes publikoa lehenetsi”

Agintariak “arduragabekeriak, gardentasun ezarekin eta mespretxuz ari dira jokatzeko ingurumen, segurtasun eta osasunarekiko”. Eta suteak, istripuok Zaldibarko zabortegean izandako hondamendiarekin parekatu dituen arren, gertaera hauekiko erantzukizuna Bizkaiko aipatu hondakindegiekin alderatuta ezberdinak dira GuraSOsek nabarmendu zuenez. “Hau ez da Zaldibarren gertatu zen moduan enpresa baten errua. Kasu honetan enpresak badu bere ardura baina gu zaindu behar gaituena ez da enpresa, gure zergekin ordaintzen ditugun agintari eta erakundeak baizik. Haiek dira interes publikoa lehenetsi behar dutenak eta ez interes partikularrak”.

“Zer sinesgarritasun dute? Batere ez”

Arduragabekeria eta gardentasun faltarekin jokatzeari egotzi zioten erraustegiaren sustatzailei. “Hau al da hainbesteetan propaganda hutsez saldu zaigun Europa mailako instalazio moderno eta aitzindaria? Halako arrisku, ezinegonarekin bizitzea, hau al da Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eskaintzen dizkiguten bizi baldintzak? Nola fidatu gaitezke aurrerantzean ematen dizkiguten datuekin? Zer sinesgarritasun dute? Batere ez”, adierazi zuen Gura-

SOsek eskaera argi bat exijitzeari batera. GuraSOsen esanetan asko dago jokoan; batetik herritarrei dirutan egoniko kaltea. Zifra zehatz bat jarri diote jada kalte horri; 41,6 milioitik gorakoa. Kalteez hitz egiterakoan, “preziorik ez duena” ere nabarmendu dute; herritarren eta erraustegian lanean dabiltzanen segurtasun eta osasuna. “Bakoitzak egin beharrekoa egin dezala, denok bermatua izan dezagun bizitza duin, seguru eta osasuntsua”.

Egia argitu arte

Egoera honen aurrean, urteak plazaratzen daramaten eskaera egin diete agintariei; bermerik gabe lanean ari den Zubietako erraustegia berehala geratzeari exijitu dute, “gure seme-alaben osasuna bermatu egin behar dugulako eta ikusten dugulako erraustegiak ez duela egiten”. Horregatik, “behin eta berriro egin dugun moduan, erraustegiaren itxiera eskatzen dugu ez baitu ez gure seme-alaben ezta herritar guztien osasuna bermatzen”.

Helburuok lortu eta egia osoa argitu arte “agintariak egin beharko luketen” baina GuraSOsen esanetan egiten ez duten lan hau egiten, hau da, erraustegiaren bueltan gertatzen ari denaz informatzen, egia argitzeko lanean jarraituko dutela iragarri du GuraSOsek. “Agintariak herritarrek informatu behar dituzte. Egiten ez dutenez, egia esaten ez dutenez, herritarrok antolatu eta betebehari hori betetzen segiko dugu, jendarte informatzen”.

GuraSOSen salaketa ikertzen hasi da Fiskaltza

Abenduaren 23an GuraSOSek salaketa aurkeztu zuen Gipuzkoako Fiskaltzan, erraustegian antzemandako “ustezko irregulartasunak” argitzeko. Gipuzkoako Fiskaltza salaketa hura ikertzen hasi dela berri eman zuen GuraSOSek joan den asteko prentsaurrekoan, ustezko delituri egon ote den aztertu eta hala balitz, erantzukizunak argitzeko.

Berme legalen eske

Aipatu elkartetik berri eman dutenez, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren Gipuzkoako lurralde ordezkariak “ziurtagiri eta txosten kopuru aipagarria” helarazi beharko dio Fiskaltzari. Tartean, “instalakuntza elektrikoa martxan jartzeko bere funtzionamendu legala gaitzen duen akta ba ote duen edo ez”. Ezetz uste baitu GuraSOSek eskuartean duen dokumentazioagatik. “Erraustu eta balorizatzeko planta ilegalki funtzionatzen



Abenduaren 23an GuraSOSek salaketa aurkeztu zuen Gipuzkoako Fiskaltzan.

GURASOS

“Erraustu eta balorizatzeko planta ilegalki funtzionatzen egon daiteke”

egon daiteke”, ohartarazi du.

Horregatik GuraSOSen araber ezin da baieztatu “erraustete planta erabat martxan dagoenik, probaldi fasea ez duelako gairiditu, are gutxiago gas eta argindar instalakuntzen ikuskapena edota segurtasuna eta ingurumenaren zain-tza bermatzen duten baimen, ziurtagiri eta homologazioak”.

suneta eta ingurumenaren zain-tza bermatzen duten baimen, ziurtagiri eta homologazioak”.

Errekerimenduak

“Red Electrica de España” ere interpelatzen du GuraSOSek, “Gipuzkoako Ingurumen Gunea” deituriko Zubieta gaineko eremu horretan, argindarra sortzeko instalakuntzek martxan jartzeko behin behineko baimena ote duten eta baime-nik gabe ilegalki posible ote den hornikuntza sarerako sarbidea izatea, informa dezan.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko kontu-hartzaileari errekerimendua helarazi diola ere berri eman du GuraSOSek. Bertan elkarte honek 41,6 milioi euroko galera salatzen du erraustegiaren obra kontratua- ren “kudeaketa txarragatik”. Dirutza kopuru hau zerk eragin duen ere azaldu dute. Batetik, lanak amaitu, probaldi fasea amaitu edo argindarra sortzeko instalakuntzen erregistroan ize- na emanda egotea, hiru bal- dintza hauek bete gabe egin behar izan diren ordainketak leudeke; “orain arte gutxie- nez 5 milioi euro eta hilabete bakoitzeko 2 milioi euro gehia- go”. Bigarrenik, lanen amaie- ran eta martxan jartze horretan izan den atzerapenak eragin- dako gastuak, kobratzerari u- tzitakoak leudeke.

Egoera honetan, Gipuzkoako Udalak, Mankomunitateak, GHK-ren asanblada eta Gi- puzkoako Foru Aldundia “al- txor publikoa” babestera deitu ditu GuraSOSek.

Urtarrilaren 12an sutea piztu zen erraustegian

Ezin jakin barruan zer ger- tatzen ari den. Kanpotik be- giratuta, itxuraz, erraustegia ohiko jardunean ari zela zir- dien; 2019ko azaroa amaiera- tik sarritan ikusi dugun mo- duan, kea dariola zen Zubieta gaineko azpiegitura urtarrila- ren 13an. Baina ez; oraindik argitzeke dauden arrazoi- enatik sutea izan zen errauste- gian, hilaren 12an 15:00etan SOS Deiak-ek sare sozialen bidez ohartarazi zuenez.

Enpresako langileek ezin izan zutela haien kabuz itza- li eta larrialdi zerbitzuen la- guntza ezinbestekoa izan zu- tela sutea mendean hartzeko gaineratu zuten. Itzali zutenik ez zuen baieztatu iturri ofizial honek. “Zubietako errauste-



Sutea 13:30ak aldera piztu omen zen “zaborra pilatzeko gunean”.

URTARRILAREN 12AN

“Oraindik argitzeke dauden arrazoiengatik, sutea izan zen erraustegian”

gian sute bat piztu da. Enpre- sako langileek larrialdi zerbi- tzukoen laguntzarekin, sutea kontrolpean dute”, ohartarazi

zuen SOS Deiak-ek.

“Zaborra pilatzeko gunean”

Eusko Jaurlaritzaren Segurta- sun Sailak hedabide ezberdi- netan gaineratu zuenez, sutea 13:30ak aldera piztu omen zen “zaborra pilatzeko gunean”. Suteak ez zuela inolako kalte material zein pertsonalik era- gin zioten. Eta suhiltzaileak

bertan gelditu zirela, garra- k berriz piztea eragozteko.

“Zer gertatu da?”

Sutea gertatu zela zabaldu ostean, herritarrak zer ger- tatu zen galdezka hasi ziren berehala. Tartean Usurbilgo alkate Agurtzane Solabe- rrieta. “Albiste onik ez, be- rriz ere, erraustegitik. Zer gertatu da? Ze erre da?”, adierazi zuen albiste eza- gutzera eman eta gutxira sare sozialen bidez. Gerta- tutakoarekiko kezka agertu eta argibideak eskatu zizkion Gipuzkoako Foru Aldundiari. “Kezkaz gaude inguruan bizi garen herritarrak. Informazio osoa, gardentasuna eta kon- trol publikoa exijitzen dugu”, galdegin zuen alkateak.

“Osasuna, ingurumena, justizia” babesteko GuraSOsek deitutako giza kate berritzailea

Ingurumen larrialdia salatze-ko “Aldaketaldia” zikloa antolatu du Larreko Mahaia. Ziklo honen baitan, GuraSOsek giza katea deitu du larunbat honetarako, eguerdiko 12:00etan Donostian, “osasuna, ingurumena eta justizia” aldarripean.

Aldarri honi lotutako hiri-buruko puntu “sinbolikoak” lotuko ditu giza kateak. “Eusko Jaurlaritzak Andia kalean duen Gipuzkoako Ordezkaritza eta Kalkutako Teresa Plaza batuko ditu. Diputazio Jauregitik (Gipuzkoa plaza) eta sorospen zentrotik (Bengoetxea kalea) igaroko da, berri eman du GuraSOsek.

Guneok zeharkatuko dituen giza katearen bidez, “erakundeek segurtasunarekiko, osasunarekiko eta ingurumenarekiko duten mespretxua salatu nahi du mobilizazioak eta eskari hau sinbolizatzen dute lau puntuek. Era berean justiziak



Larunbateko mobilizaziorako musuko gorriak banatuko dituzte.

LARUNBAT HONETAN

**12:00etan Donostian,
“Osasuna, ingurumena
eta justizia” aldarripean**

dagokion legezketasun-kontrola egin dezan eskatu nahi da”.

Erraustegia salatze

GuraSOsek salatu duen hiru-garren sutea gertatu berritan egingo da giza katea, “errauskailua geldiarazteko EAEko Auzitegi Nagusian berehala

aurkeztuko duen eskaerarekin” ere egokituko da.

“Era berean, GHK-k egingo ohararazpen onartezina salatze ere balioko du; izan ere, herritarren salaketengatik lege-ekintzak abiarazteko ohararazpena egin zuen, eta ohararazpen hori bateraezina da ingurumenaren defentsarako nazioarteko eskubidea askatasunez egikaritzearekin”.

Babes neurriak betetzeko deia
Bizi dugun osasun krisialdia

tarteko, antolakuntzak ezarriko dituen segurtasun neurriak betetzeko lankidetzak eskatzen die GuraSOsek mobilizazioan parte hartuko dutenei.

Batetik, mobilizazioen amaierako ekitaldirik ez da izango oraingoan, “ez behintzat ohiko moduan”, GuraSOsen esanetan; streaming bidez eskaini asmo dute. “Amaiera ekitaldia ikusteko esteka gurasos.org webgunean egongo da eskuragarri. Itxiera ekitaldia 12:15ean izango da”.

“Aldaketaldia” antolatu dute, ingurumen larrialdia salatze
Larreko Mahaiko eragile anitzek “Zaldibar gogoratu, ondo bizi eta bizitzen uzteko Aldaketaldia” ekimen zikloa antolatu du. “Aldaketa behar dugu. Alda sistema! Bat egin urtarilaren 30ean has daitekeen Aldaketaldiarekin”, deitu dute egunotan Donostian egin duten agerraldi bidez.

Usurbildarrak non? 11:50ean, Donostiako Kalkuta plazan

Mobilizaziorako musuko gorriak banatuko dituzte, “GuraSOsen logoa simulatuz. Logoan maskara hori agertzen da, kutsadurak eragindako arriskuaren ikur gisa”.

Lehen aipaturiko oharra; “katean bizikidetzak-unitateak bakarrik egon ahalko dira elkarrekin. Gainerakoak eta bizikidetzak-unitateak elkarrengandik 3 metrora egongo dira, eta, horrela, kon-

takturik gabeko kate bat osatuko dute”.

Antolaketa hau guztia bideratzeko lan talde zabala osatu du GuraSOsek. “20 bolondres arduratuko dira katea antolatzeko eta dagozkion jarraibideak emateaz. Hori bai, komunikabideen laguntza eskatzen da jarraibide horiek zabaltzen laguntzeko eta deialdian parte hartzen duten pertsonen antolaketaren jarraibideak betetzen

laguntzeko”.

Giza-katea eskualdeka antolatuko da

Jende pilaketak saihesteko antolakuntzak lau zatietan banatuko du ibilbidea. Zati bakoitzean eskualde ezberdinetako herritarrek parte hartu ahalko dute. Bakoitzak dagokion kate zatian egon beharko du, mobilizazioa hasi baino 10 minutu lehenago, 11:50ean:

- 1. zatia. Andia-Diputazioa: Urola Kosta Debabarrena.
- 2. zatia. Diputazioa-Oken- do/Askatasunaren hiribidea 5 (Bankoa) Debagoiena-Goierri-Tolosaldea.
- 3. zatia. Askatasunaren hiribidea, 5. zk., Santa Katalina zubia: Donostialdea.
- 4. zatia. Urumea-Kalkuta plaza: Oarsoaldea-Bidasoa-Buruntzaldea.



ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Kontratu finkoa daukat eta Usurbilen edo Lasarten kontratuarekin eta errolarekin alokairuan etxe bat edo logela bat hartuko nuke. 675886442 (Fernando).

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Volkswagen Caravelle, 2011koa, salgai. 677642776.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

Nissan Note 1600 gasolina kotea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dabilen pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar

dugu Lukainategi erretegiari. 680 483 164

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Erizaintzako laguntzailea naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak, pertsona helduak zaintzeko prest. 626388531

Lan bila nabil. Orduka, externa... Umeak edo helduak zaintzeko ala garbiketa lanak egiteko. Lan baimena dut: 643967056.

Lan bila nabil. Gaztea, ostalaritza ikastaroa egina dut. Lan baimena dut: 602531759.

Helduak zaintzen esperientzia duen neska bat naiz eta lan bila nabil, orduka, esterna edo interna moduan. 603315126.

Emakume bat eskaintzen da umeak, adineko pertsonak eta etxeko lanak egiteko. Informee-kin 658706345 / 602568090.

24 urteko neska gaztea. Arratsaldean umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina

bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo helduena. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Interesatuak deitu: 631 489 128.

Astelehenetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizona eskaintzen da. Lanaldi osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz Ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelese ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuaren haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. 664192760 / 722483994.

Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

BESTELAKOAK

Egur eta ikatz sukalde ekonomika saltzen dut. Deville marka frantsesa. Barruan labe handi bat, labearen azpiko tiradera eta errautsak biltzeko gaitasun handiko bandeja bat ditu. Prezio negoziagarria. 696763868/699723314

Perikito bat galdu da Puntapax inguruan. Urdina, bulardean lumak galduta ditu. Topatu baduzu, deitu hona: 675007048.

Mendiko bizikleta bat salgai 450 euro, negoziagarriak. 646715903 (Maidier)

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatean: 9:00-13:00.

Heriotzak**Rafaela****Zamora****Navajas**

Urtarrilaren

17an hil zen,

92 urterekin



Zorionak Josu eta Aitona!
Muxu handi bat etxekoan partez.

Goardiako farmaziak

Osteguna 21 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 22 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 23 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 24 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astelehena 25 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 26 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 27 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 28 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 29 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 30 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 31 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Agenda urtarrila

21 osteguna

■ **Ahalduntze ikastaroaren hasiera** Pepa Bojoren eskutik 17:00-19:00ak artean Potxoenean. Aurrez eman behar da izena (doan da ikastaroa): 943 377 110.
parekidetasuna1@usurbil.eus

23 larunbata

■ **GuraSOSek deituriko giza-katea** Donostian, "Osasuna, ingurumena eta justizia" aldarripean. Buruntzaldeko herritarren topalekua: 11:50ean Kalkuta plazan.

24 igandea

Kutsadura-fokuei buruzko hitzaldia, "Aldaketaldiaren" baitan

Zaldibar gogoratuz, ondo bizi eta bizitzen uzteko Aldaketaldia ekimen zikloa antolatu dute Larreko Mahaia bilgunekoek. Ingurumen larrialdia salatzeke ekintza sorta iragarri dute.

Hitzaldia Potxoenean

Testuinguru honetan denetarik ekintzak egingo dira herriz herri. Usurbilen, Anerreka Ingurumen Elkartek "Usurbilgo kutsadura-foku nagusien azalpena" hitzaldia antolatu du urtarilaren 27an 18:30ean Potxoenean. Felix Olaetxea izango da hizlaria.

"Aldaketaldia" ekimen zikloaren mobilizazio nagusia bestalde, urtarilaren



Datorren asteazkenean, hilak 27, 18:30ean Potxoenean. Felix Olaetxea izango da hizlaria.

30ean izango da, 17:00etan Donostian. "Ahal den manifestazio batu, animatu eta koloretsuena" osatzeko deia egin dute. Gladys Enea, Bilbo plaza, Getaria kalea eta Bulebarra lotuko ditu.

Ahalduntze ikastaroa, Pepa Bojoren eskutik

Urtarrilaren 21ean hasi eta martxoaren 25era arte luzatuko da. Ostegunez izango dira saioak, 17:00-19:00 artean, Potxoenean.

Izen-ematea

■ Aurrez eman beharko da izena (doan da ikastaroa): 943 377 110.
parekidetasuna1@usurbil.eus
■ Parte hartzaile kopurua mugatua.

Hizkuntza eskubideen ahalduntzerako saioa

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak eta Usurbilgo Udalak berriki sinaturiko lan-kidetza hitzarmenaren testuinguruan, herritarrak dagozkien hizkuntza-eskubideen arloan ahalduntzeko prestakuntza saioa deitu du Usurbilgo Udalak otsailaren 3an 18:00etan Sutegin. Behatokiak bideratuko duen hitzordurako izena doan eman daiteke jada usurbilkultura.eus atarian.

Datozenak

KzGuneko ikastaroak

Whatsapp, bat-bateko mezularitza zure Smartphonean.

- Urtarrilak 28 eta 29.
- Ordutegia: 9:00-11:00.
- Euskaraz.

Informazio gehiago Usurbilgo KzGunean edota bertara telefonoz deituta, 943 02 36 84.

Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea

Euskal presoen eskubideen aldeko azken ostiraleko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Egun bizi dugun osasun krisialdira egokituta noski. Mobilizazio honetan parte hartu asmo dutenei ordea, maskarak erabili eta bi metroko segurtasun tartea errespetatzea eskatzen diete deitzaileek.

Urtarrilak 29 ostirala

20:00etan, Mikel Laboa plazan.
Deitzailea: Usurbilgo Sare.



Urtarrilaren 29an, 20:00etan Mikel Laboan.

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

Zuen
publizitatea
hemen
943 360 321
publizitatea@noaUA.eus

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL



Euskaraz SEGURU



Euskaraz Praktikatu eta Bizitzeko aukerak

TALDE
TXIKIAK

ESPAZIO
SEGURUETAN

NEURRI
GUZTIEKIN

ONLINE
ERE BAI

OHARRA: Mintzapraktika taldeetan, eta antolatzen ditugun ekintza guztietan, segurtasun neurriak bermatuta daude, eta era berean COVID19rako protokoloa aplikatzen dugu.

ZATOZ GUREKIN!
EMAN IZENA



Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- **Hezkuntza Integrala:** Konpetentzietan Oinarritutako Hezkuntza.
- **Hezkuntza eredu propioa:** Konfiantzaren Pedagogia egitasmoa garatzen dugu.
- **Ikastola Berritzailea:** eraldaketa didaktiko, metodologiko, eta teknologiko etengabea sustatzen dugu.
- **Ikastola Euskalduna:** euskaraz irakatsiz eta ikasiz, euskaraz biziz, euskaldun konprometituak hezten dihardugu.
- **Irakaskuntza Eleanitza:** ingelesa 4 urtetik aurrera eta frantsesa, hautazko gaia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- **Herritarra:** Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildutako ikastola.
- **Ikastola Inklusiboa:** guztion ikastola bultzatzen dugu, aniztasuna, garapen-erritmo eta behar espezifikoak aintzat hartuz.
- **KiVa ikastola:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean 2017tik aurrera beste 56 ikastolekin batera.
- **Autobusa** auzo eta herrietara: Santuenea, Aginaga, Zubieta eta Lasarte.
- **Jangela:** bertan sukaldatutako herriko produktuak.
- **Zaintza zerbitzua:** 08:00etatik 09:00etara eta iraila eta ekainean 14:30 16:30era.
- **ZIRIMARA aisialdi Proiektua eta eskolaz kanpoko jarduerak:** kirolak, dantza, xake eta antzerkia.
- **Beka sistema propioa:** kuoten %100 bonifikatua.

53 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)
Urtarrilaren 18tik 29ra (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6
LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12
DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea, USURBIL

www.udarregi.eus